

TXANPON ALDAKETA

Urte berriarekin batean sartuko da euroa indarrean

■ Gaur gaueko 12:00ak ezker izango dugu eurotan ordaintzeko aukera ■ Hernaniko tabernariak, gaurko gauean, pezetetan emango dituzte bueltak.

BIHAR goizaldera hasiko da euroaren bizitza, 2002arekin batean. Pezeta ez da derrepentean izkutatu, ordea: martxo-ra arte pezetak hartuko dituzte denda, taberna eta bestetan; baina, hori bai, bueltak eurotan emango dizkigute.

GERO, BANKUETAN BAKARRIK

Martxotik ekainera banku eta aurrezki kutxetan bakarrik hartuko dituzte pezetak. Ekainetik aurrera, berriz, Españaño Bankuak bakarrik hartuko ditu pezetak.

TABERNARIAK PEZETETAN

Urte zahar eta urte berri egunetan eromena izaten da tabernetan. Hori dela-eta, Hernaniko tabernariak bueltak pezetetan ematen segitzea erabaki dute, urte berri egunetan ere. Hartu, euroak eta pezetak egingo dituzte, baina, bueltatu pezetak. Urtarrilaren 2an hasiko dira buelta guztiak eurotan ematen. □



Pezetak, euroak eta xentimoak batean.

'Zaldun Ziza' perretxikua toxikoa izan liteke

■ Hernani inguruan bada jateko ohitura ■ 'Urretza' Urumeako mikologia elkarteak "kontuz ibiltzeko" gomendatu dio jendeari.



'Zaldun zizak' kolore horizta du.

TRICHOLOMA equestre du izen zientifikoa eta inguru honetan *Zaldun Ziza* deitzen zaio. Iparraldean biltzen da, gehien bat, pinudietan, urritik abendu alderarte. Hernani inguruan bada jateko ohitura, *Urretza* mikologia elkartetik jakinarazi digutenez.

PERRETXIKU TOXIKOA

Gaur arte ona zen perretxiku hau, baina, azken boladan toxizidate kasuak azaldu dira. Zergatik pasa den ez daki inork, baina, pozointsua izan daitekeela jakinek da dagoeneko.

Eusko Jaurlaritzako osasun arduradunak berak ere kontuz ibiltzeko gomendioa luzatu du, agertu diren intoxikazio kasu guztiak medio. □

BERRIAK ELKARTEA

Bederatzi sarien zozketa larunbatean egin zen

■ Berriak elkarteak larunbatean egin zuen 9 sarien zozketa. Elkarteko dendariak jarritako produktuekin 9 lote osatu zituzten. Saridunak agertu dira dagoeneko: Francisco Gerrero, Raul Hernandez, Jesus Urtz, Lurdes Aginaga, Rosa M^a Dragon, Maialen Grajal, Luisa Guzman, Ignacio Etxabe eta M^a Angeles Marcos.

Bestalde, Txorimalo lehiaketako sariak ere banatuak dituzte. Irabazlea Urumea ikastolako txorimaloa izan zen, bigarren gelditu zena ere bai eta hirugarren saria Gazte Txokokoek eraman zuten.

ETXERAT ELKARTEA

Adarrara presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzera

■ ETXERAT elkarteak ibilia antolatu du Adarra mendira, urte berri egunerako. Ohitura da urte hasieran mendi tontorrik nagusienetara igotzea, eta Etxerat elkarteak presoak Euskal Herriratzeko aldarrikapena eraman nahi du Euskal Herriko mendietara. Adarrarako zita Besabin jarri dute, goizeko 09:00etan; eta gaintzean Adarra puntan, 11:00etan.

UDAL AURREKONTUAK EZTABAIDAN

Udal inbertsioak eztabaidan, asteazkenean

■ Gobernu taldearen eta herritarren inbertsio proposamenak eztabaidatuko dira ■ Pleno aretoan 19:30etan. 2002ko udal inbertsioak eztabaidatzen ari dira gobernu taldekoak eta herritarrak. Lehen bi bileretan proposamenak egin dituzte bi aldeek, eta urtarrilaren 2a izango da proposamenak eztabaidatzeko eguna. □

BERTSOLATA

Urte zaharreko erronda, gaur

■ Arratsaldeko 17:00etan irtengo dira udaletxeko arkupeetatik ■ Betso-pelota errege egunera atzeratu da.

GAUR, urte zahar eguna, kalez kale erronda egingo da, kantu eta bertso. *Ohitura Zaharrak* elkarteak antolatu du eta hernaniarrei animatzeko deia luzatu die. Zita 17:00etan arkupeetan, baserritar jantzita.

BERTSO-PELOTA IGANDEZ

Atzo zen bertso-pelota egitekoa, baina, dudako eguraldia medio errege egunera atzeratu

dute. Eguerdiko 12:00-etan, Tilosetan.

Bestalde, 800 bat lagun bildu ziren larunbatean bertso jaialdian. Giroa primerakoa, eta baita bertso maila ere. Bukaeran alkatea eta bi zingotzik omenaldi txiki bat egin zieten Maialen Lujanbio, JM Irazu eta Aitor Mendiluzeri, eta baita Iraulio Panttalone bertso eskolari ere. □

**OKINDEGIA
ANTZIOLA**
Eguneroko ogirik onena!
ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

BADATZ ERREGEAK, BADATZ
**Tximelata**
ZATZ TXIMELETARA ZURE
OPARIAK AUKERATZERA
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Florida 54
Tel: 943 33 03 97
HERNANI
• Eguneroko menua •

**JANTZIDENDA
LOHER**
Emakume
Gizon eta haurrentzat

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Elkano 1, (Eliza atzekaldean)
Tel. 943 555 003 - HERNANI

Skoda Octavia Combi 4X4 .
Obsesionatzen gaituzte teknologiak eta segurtasunak. MSR gurrupiletako trakzioa Haldez sistemarekin, 2000 cc eta gidariaren nahiz ondokoaren aire-poltsak, gaitu toki zabalak: 1.412 litrorainoko tokia eta leku zabalak bidaiariarentzat. Erakartzeko sunak: serieko osagaietan sartuak daude Cl.

MENABI
Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa - Donostia Tel. 943 40 42 43

KAROBI ELKARTEA

Lehen urteurrena ospatzeko ekitaldiek jende asko mugitu dute

■ Arduradunak gustora daude sortutako mugimenduari ■ Tute txapelketako sari banaketa ostiraleko afal ondoan egin zen.



Tute txapelketako sarituak eta soziedadeko arduradunak (Argazkia: Biyok).

KAROBI Elkartek bere urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu aste osoan. Ostiralean azken afaria izan zuten. 85 lagun bildu ziren; bertsolariak aritu ziren kantuan eta Tute Txapelketako sariak ere han eman zituzten.

TUTE TXAPELKETA
Mariano eta Patxi dira txapelketaren arduradunak. Hamar pareja ziren eta

lau saritu: 1) Mariano eta Patxi; 2) Carlos eta Manolo; 3) Joxan eta Jose; 4) Joxan eta Tomas.

BESTE EKITALDIAK
Aste osoan egin diren beste ekitaldietan "jendetxua" ibili dela esan digute arduradunek: "gustora gaude sortu degun mugimenduari. Hitzaldian, ez zan jende izugarri,

baina, bestela kabitu ezinda ibili gera". Karobie buruzko hitzaldian 15 lagun bildu ziren; ipuin kontaketa 70 ume, 3-8 urte bitartekoak. Ondoren txokolatada eman zuten eta justu iritsi zitzaizkien denek. Ostiralean afaria egin zuten soziedadean eta 85 lagun juntatu ziren. Arduradunak harro daude, lehenbiziko urtea oso ondo joan omen zaielako. □

JASOTA BEZALA

Lankideak bai, diskriminaziorik ez

2001/12/24an Kronikan argitaratu zen karta idatzian esan ziren gauzen aurrean erantzun bat eman behar dugula uste dugu, nahiz eta eztabaidetan sartu nahi ez izan. Ongintzako giroa kakaztea ez da gure helburua, eta klinika-laguntzaileen egutegiarekin jolastea gutxiago oraindik.

Langileen lan baldintzak ahal den neurrian berdintsuak izatea da gure helburua. Egutegi diskriminaziorioekin ez goaz inora. Egutegi eta lan baldin-

tza duinak izateak langile guztien helburua izan beharko luke eta gu bide horretatik goaz.

Edozein kasutan enpresak ukatuko ligukete eskubide hori, eta ez zuek.

%62ko langileen kasuan bi diskriminazio haundi ikusten ditugu: Batetik lanaldi osoaren %62 daukate, ez jornada osoa; eta gainera urteko 15 jai egunetatik %80an lan egin behar dute eta 52 asteburutatik %72an ere bai. Aldika, hileko 4 asteburutan lan egitea egokitzen zaie.

Zenbait langile hau gerta ez dadin saiatu garen bitarte-

an, gutxiengo batek hilean 2 asteburu lan egiten jarraitu nahi izan du. Ez diogu inori ezer kendu nahi, eta ez da gure helburua, berdintasuna nahi dugu soilik. Orain dela 18 urte zerbitzu hau martxan jarri zen, langile batekin, eta beharraren poderioz orain 32 langile gaude; 22 lanaldi osoan, eta 10 erdian (32 langile hauek 29 finakoak gara eta 3 ebentualak). Ez ditzagun herriarrak nahastu, serioagoak eta solidarioak izan gaitzen.

Malu Gastesi Garin eta 18 laguntzaile finakoek sinatua

ELUR TXORI

Mus txapelketako bigarren fasea etzi hasiko dute

■ Urtarrilaren 11rako jokatu behar dira partidak.

ELUR Txori Elkarteko mus txapelketa bigarren fasean sartuko da, asteazkenean. Sortea eginda dago, eta erabakita zein zeinen kontra ariko den.

Partidak etzi hasi eta urtarrilaren 10ean bukatuko dira. 20:00etatik 22:00etara jokatu behar dira. Ondorengo hauek dira partidak:

Bikoteka, ASTEAZKENA 2	Bikoteka, ASTEAZKENA 9
Jokin-J.Bautista / Armendariz-Ceci	Riekalde-J.Bilbao / Zubillaga-Martinez
Niko-Julian / Joxe-Manolo	Patxi Lopez-Javi / C.Martinez-T.Sanz
Xabier-Quijera / Txemari-Angel	Arraras-Pottoko / Artetxe-Aierdi
Lapazaran-Arozamena / Diego-Antonio	Rafa-Joseba / Polo-Txepi
Bikoteka, OSTEGUNA 3	Bikoteka, OSTEGUNA 10
Usabiaga-Burugain / Ormazabal-I.Bilbao	Txatxon-Julio / Ruso-Carlos
Gaztañaga-Otegi / Karrera-Mitxelena	Javi-Rafa / Iturriza-Esnal
Uzkudun-XX / Josu-Gorka	D.Karrera-Landa / Apaolaza-Peli
Aurelio-Sanz / Joxan-Pako	Gregorio-Valentin / A.Sanz-Valle
Buruz buru, OSTEGUNA 3	Buruz buru, OSTEGUNA 10
Rafa / Esnal	Ormazabal / Txatxon
Zubillaga / J. Lopez	Arozamena / Bilbao

*Libre: Lapazaran

Loteria puxka bat 49ko kintoentzat

■ LOTERIA dela eta, aurtun gutxi aberastuko ziren Hernanin. Hala ere, leku batean baino gehiagotan egin ditu *keinutxoak*. Horieta bat 49ko kintoei tokatu zaie: 5.000 pta boleto bakoitzagatik. Urtero egiten dute 49ko kintoei bazkaria eta urtero jokatzeko dute Loteria ere.

Beraz, kobratu nahi dutenak pasa daitezela Txantxagorri Elkartetik 10:30etatik 12:30etara bitarte, edo deitu dezatela telefono hauetara: 943-330190 (Inaki); 943-550291 (Salbador); 943-553068 (Irizar); 943-554845 (Seve); 943-551371 (Agustin).

PELOTA

-HERNANI-AÑORGA DESAFIOA-

Hernanik irabazi zuen (2-1)

■ Arrieta-Gurrutxagak (14-22) galdu; Alvarez-Juberok (22-8) eta Mendizabal-Erroizeneak (22-12) irabazi.



Añorgako aurrelaria sakera, Jubero eta Alvarez errestora.

HERIOTZAK

Jara Zuza

Larunbatean hil zen 17 egun zituela Hileta elizkizuna, gaur astelehena, arratsaldeko 21:00etan Juan Bataiatzailea parrokian



Bertan egindako kalitatezko ogia

Zorionak eta urteberri on.

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI



DELICATESSEN
since 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

**Zorionak eta urte
berri on!**

**Tel. 649 846 422
HERNANI**

**Hernaniko
Kronika**

INTERNETEN

www.hkronika.com